

# 2016 URTEA

2017ko aurrekontuak



**BILERA MOTA:** AUZOTAKO BILERA ITURRIOTZ

**ZENBATGARREN SAIOA : 5**

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2016-11-14	19:35	21:05

## BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux, Agurtzane, Iñaki, Domi, Jon eta Eneritz
-------------------	--

Kopurua: 19

16-30 urte: 5	Emakumeak: 10	Euskaraz: 19
30-50 urte: 6	Gizonezkoak: 9	Elebitan: 0
50-65 urte:		
>65 urte: 8		

**AKTALARIA:** Eneritz Arbelaitz

## Gai zerrenda:

### GAIA/JUSTIFIKAZIOA

### ERABAKIA

1	Aurkezpena	Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da.
2	Aurrekontuak 2017	2017ko lehenengo zirriborroa aurkeztu da: diru sarreraren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2016ko balorazioa	2016ko inbertsioen balorazioa aurkeztu da.
4	2017ko inbertsioak	2016ko bileretan jasotako eskaeren ondoren eta urtean zehar ikusi diren beharren ondoren, 2017rako herri mailan inbertsio egin beharreko handiak aurkeztu dira.  · Txipito ezin ote den asfaltatu galdetu dute. Erantzuna: 2016an oinezkoen espaloiak lehenestea erabaki da. Datorren urtean ere ez dugu uste lehentasunetan sartuko denik. Gure eginbeharretan badago hala ere.  · Matteon ere blandoiak daude. Erantzuna: aldundiko errepide sailekoekin ari gara hori lantzen, errepidea beraiena baita. Proiektua enkargatua dute baina zain gaude.  · Iturriotz-Altzibar lotura argiztatu beharra dago eta gainera ibilgailuak uzten dituzte. Erantzuna: espaloia zeditzea hitzartu zen Agerrealden egingo ziren etheen garapenarekin. Oraindik ez dugu hitz egin

		Adurizekoekin, baina 2017an egin nahi dugu.
5	Iturriozko lanak	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Tronpeon arketa baten ondoan zulo ikaragarria dago. Palaziora sartzeko pare horretan.</li> <li>· Torre etxea desaprobetxatua dago. Helduen tailerraz gain ez da gehiago erabiltzen. Aparkalekua ere gaizki dago. Sarrera txarra du gainera. Beheko pisuan lona bat dago jarria eta auzoko jaietan ezin izandu zen erabili.</li> <li>· Tronpeoko malda: bi kotxe topatzen badira oinezkoek ez dute lehentasunik. Norabide bakarrean jartzea aztertu da? Erantzuna: ordu jakin batzuetan denak leku berera joan nahi dugu. Horretarako aztertu da udaltzainekin eta ikastetxeekin eta norabide horretan erabaki zen jartzea. Irizpide teknikoa erabili da. Gainera, pertsona bat-ikasle bat-kotxe bat ez da bideragarria, arazoa beti sortuko da. Beraz, aurrera begira, ingurua ixtea ere aztertu beharko da.</li> <li>· Erabat norabide bakarrean jartzea proposatu du batek. Beste batek dio ez dela posiblea, Altzibartik ere bide txarra dago. Tronpeo eta Altzibarko bidea ere zabaldu beharko lirateke. Tronpeo zergatik ez den zabaldu galdetu du batek. Erantzuna: Tronpeo ez da zabaldu inguruko lurren zesorik ez delako egin. Aurrekontua ere igo egingo luke. Tronpeon orain egindako moldaketarekin lortu dugu ordu batzuetako egoera konpontzea. Aurrera begira ikusiko dugu. Beste herritar batek esan du oinezkoari babesa ematen diola pintaketa berriak. Lehen kotxez ibiltzen zen jende bat ere oinez hasi da.</li> <li>· Garañoko iturrian ur-bide bat dago eta obra bat egin zenean bertan dauden plaka batzuk lehertu egin dira. Arriskutsu geratu da.</li> <li>· Autobus linea Ibarren egoten da aparkatua. Gasolineratik irteterakoan bisibilitatea kentzen du. Beste tokirik ez dago egoteko? Arriskutsu geratzen da. Hala ere, plazan geratu beharrean, auzotar batzuk nahiago dute ibarren geldirik egotea, gutxienez auzora azkar iristeko.</li> <li>· Iturriotz kartela oraindik ez dago jarria.</li> <li>· Sabada eta kamiyo bitartean sasia gailentzen ari da. Espaloia tapatzen ari da.</li> <li>· Ikastolatik zurkoko bidea oso polita da eta zakarrak hartua dago. Beste auzotar batek dio garbitu dutela. Erantzuna: duela hilabete garbitu zuten.</li> </ul>



		<ul style="list-style-type: none"> <li>· Argiñenetik Ozentzio 24 atzera bide peatonaletik ibilgailuak ibiltzen dira. Hor pibotea jartzea eskatu izan dute beti bizilagunek. Komentatu izan omen dute urbanizazioa bukatu gabe dagoela eta horregatik ezin dela jarri pibotea. Pibotea jartzekotan giltzarekin jartzeko aukera eskatzen dute, portalera anbulantziak joan beharko balu aukera edukitzeko. Erantzuna: begiratuko dugu.</li> <li>· Gure txokon gaizki aparkatzen jarraiten dute eta garajetara sartzeko zail izaten da. Bi garaje daude eta bietan izaten da arazoa. Marra horirik ez dago.</li> <li>· Amenabarrek Bengoetxea plazan banko bat hautsi zuen. Horrez gain, barandak pintatu gabe daude eta dagoeneko ezin dira heldu ere egin. Santiyotan zarranbiloa ere hautsi zen.</li> <li>· Ozentzio 26-28ko baranda ere txikitua dago maldako hasieran. Erantzuna: konpondua dago.</li> <li>· Jai batzordetik eskaera: dema plazako estolderia garbitzeko eskaera egiten dute. Aurten azkenean jai batzordeak garbitu du eta hostoekin ataskatua zegoen. Lurra ere azaldu zen. Horrez gain, orain ere begiratu beharko litzateke.</li> <li>· Lertxuna jartzen den zuloa ere ez dago seguru. Zulo handiagoa beharko litzateke. Azpian tuboak omen daude eta hor zulo handia ezin da egin.</li> <li>· Ozentzio 26-28an lehen paperontzia bazegoen eta orain ez dago.</li> <li>· Belarra mozten dutenak pasatzen direnean guneez batetik, ateratzen dira zerrikeri guztiak agerira. Eskaera jarraian kale garbitzaileak pasatzea. Horrez gain, lorezaintzakoak oso gaizki egiten dute lan, zikinak, gauzak egoera txarrean uzten dituzte...</li> <li>· Gazte bezala herria gauez hila dagoela aipatu du batek. Ordutegia zabaldu beharko litzateke bere ustez. Jakin nahi du Udalak ezin ote duen ezer egin. Erantzuna: ordutegia ez du udalak jartzen. Egun bereziak daudenean ordutegi berezia dago, urtean 15 egun.</li> </ul>
6	Balorazioa	Balorazio orriak bete dira.

## 2016 URTEA

2017ko aurrekontuak



Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,6
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,5
Bileran erabili den metodologia	8,3
Herritarren asistentzia	5,3
Herritarren partehartzea	6,9
Saioa probetxugarria izan al da?	8,3
Egunaren egokitasuna	7,9
Orduaren egokitasuna	8,3
Lekuaren egokitasuna	8,6
Denera batz beste	7,8

Komunikazio bideak	Kop	%
Bandoa/kartelak	1	3,3
Whatsapp	9	30
Irratia eta prentsa	3	10
Sare sozialak	6	20
Ahoz-ahoz	5	17
Udal aldizkaria	6	20